

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko ekainak 10 · 1232. zenbakia



KIROLA EUSKARAZ BIZI IZATEAREN GOZAMENA

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. izaldua jorgevega.eibar@gmail.com

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.



E.I.T.

INFORMATIKAREN
SERBIZIOAK
www.itee.com 943 80 18 00
A.I.T. ZIBURTUENA S.L.P.
Barrera, 6 - beheko esk.

ITURGINAK

Miguel Azpiri
ITURGINA

BEREHALAKO
ZERBITZUA

ematen da 635 13 38 41

- Korporaketak
eta ordezkatzuek
ITURGINTZAN
- Korporaketak
eta interbideak
KALEFAKZIOAN

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txanta, 30 - 1. eta beheko
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkiza 28oa (tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Rosaldo, 15 - Euzobak -
605 713 168 943 744 019

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA: J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriasacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arrixeako Zubia

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com

24 orduko
argentziak

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 - H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa
Errebal, 21 www.bagliettoibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

Jarraitu gaitzazu!



San Juan jaiak ate joka ditugu eta, bi urtez itxaron ondoren, Eibarko haur eta helduek danborradan jo ahal izango dute berriz ere. Horretarako, entseguak egiten dihardute Bittor Sarasketan duten lokalean, danborrei hautsa kenduz eta gogor astinduz.



Antzerki Laborategiko ikasleek ikuskizun bikaina eskaini zuten joan den astean eta orain, ikastaroarekin amaitu ondoren, urtean zehar bizi izan dutenaren berri eman digute. Gainera, Irene Hernando Antzerki Laborategiko zuzendariak berba batzuk eskaini dizkigu baita ere.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

NORMALIZAZIOA

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

J.A. Mogel ikastola

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Udalari eta alderdi politikoei eskerrak emanez

Maiatzaren 31n egin zen Osoko Bilkuran, Udaltzatza Ongi Etorri Berbetan harrera eta elkarbizitzarako programa berriz martxan ipini ahal izateko diru-laguntza onartu zuen eta, horri esker, egitasmoaren kudeaketaz arduratzen den ...eta kitto! Euskara Elkartek gure herrian elkarbizitza eta kultur aniztasuna sustatzeko aukera izango du datorren ikasturtean. Horrekin batera, ...eta kitto! astekaria argitaratzeko diru-laguntza bailarako beste hedabideek jasotzen duten laguntzarekin parekatzea ere onartu zen. Hori dela eta, ...eta kitto! Euskara Elkartek Udalari eta bertan ordezkatuta dauden alderdi politikoei (PSE-EE, EAJ-PNV, Eibarko EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) beraien esker ona adierazi nahi diete, eskatutakoari erantzuteko izan duten prestutasunarengatik eta euskararen normaltasunaren sustapenerako erakutsi duten konpromisoarengatik.

...eta kitto! Euskara Elkartea

Urki auzoan auzolana eta kirola uztartzuz

Auzotarren laguntzarekin hainbat ekitaldi burutu genituen aurreko astebukeraren: gazteentzat pilota partiduak eta txiki-krosa prestatu genituen; nagusientzat, berriz, XII. Galdaramiñoigoeran saltaka ibili ziren, Atzegiko martxalariekin batera. Lerro hauen bitartez egitarauko jarduerak aurrera ateratzen lagundu digutenei eskertu nahi diegu: Eibarko Udala (udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, Eibarko Klub Deportiboa (mendia eta atletismo sailak), Garajes Garcia, Lacturale, Txoko taberna, Eroski, Kirolprobak, Arrate Irratia eta ...eta kitto! astekaria. Bide batez, auzora bertaratu zareten guztioi eta ekintzetan parte hartu duzuenoi, gurekin disfrutatuko zenutelakoan.

Amaitzeko, urtero legez, mila esker bolondres guztiei, zuek egiten duzuen lanean oinarritzen baita Urkin sortzen saiatzen garen elkarbizitza eta kirolarekiko harreman osasuntsua. Hurrengo urtera arte!

Galdaramiñoigoera / Urkiko Jai Batzordea

Astean esanak



Bortxaketa baten ondoren pornoak gure gazteengan duen eraginaren inguruan hasten bagara, argi dago: bortxatzaileak autoktonoak dira. Gaizkile sexualen jatorrian arreta gehiago jartzen badugu erreparatu barik gaizkile horien %100a gizonezkook osatzen dugula, baliteke pixka bat xenofoboak izatea. Gainera, etorkin deituriko horietako asko hemen jaioak dira, bigarren belaunaldikoak kasu ugarritan. Gehiago oraindik: azken urtean Bilbon itota hiltzetik bi lagun salbatu dituen bakarria gazte magrebiar bat da. Eta zer esan batzuk dioten Donostian dagoen segurtasun faltaren inguruan? Zelan izan daitezke azken bost urteotan etxebizitzaren prezioa %30 igotzea hiriburu horretan, bide batez turismo garestienaren norakoa izatea, kaleetan arriskua badago?

ALBERTO MOYANO, zutabegilea

Errusiako esportazioei eusten badiete ere, eta herrialdearen merkatal superabita errekorren bidea eraman arren, horrek esan nahi du Putin gerra ekonomikoa irabazten doala? Ba ez, galtzen dihardu. Gorantza doan superabit hori ahultasunaren seinale da, ez indarrarena, horrek herriaren inportazioen jaitziera adierazten baitu; edozein analistak daki horrek kaltea ekarriko diola bertako ekonomiarri. Errusiak diru asko dihardu irabazten petrolio eta gas salmentarekin, baina zail du gero diru hori erabiltzea behar duena erosteko, tartean tankeak eta beste tresna militar batzuk fabrikatzeko beharrezkoak dituen osagaiak. Herrialde neutralek eta Errusiaren aldekoek, eurek ere, Txina tartean, %45ean jaitzi dituzte Errusiatik inportatzen dutena

PAUL KRUGMAN, Ekonomia Nobel Saria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OILLASKO → Mutil argia, trebea. "Oillasko makala dator zure mutikua".

OIÑ ARTEKUAK APURTU / OIÑ ARTEKO GUZTIAK TAPAU →

Baten batek aparteko gauzaren bat edo disparateren bat esan edo egiten duenean esan ohi da. "Demontre! Euk apurtu dittuk oin artekuak, abendua hil?".



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 10**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - ZAPATUA 11**
 - EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
 - DOMEKA 12**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
 - ASTELEHENA 13**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)
 - MARTITZENA 14**
 - EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 - EGUAZTENA 15**
 - EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
 - EGUENA 16**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - BARIXAKUA 17**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)
- GAUEZ BETI**, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Ambulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Felipe Aragon Lopez**. 58 urte. 2022-05-31.
- **Palmira Lizaso Uriguen**. 94 urte. 2022-06-1.
- **Maria Luisa Saban De la Fuente**. 99 urte. 2022-06-1.
- **Nati Loidi Erkizia**. 97 urte. 2022-06-2.
- **Margari Zuazo Zarrabe**. 89 urte. 2022-06-2.
- **Hermina Uberuaga-Zumaran Elorza**. 85 urte. 2022-06-3.
- **Carmen Flores Perez**. 83 urte. 2022-06-6.
- **Madalen Aierbe Uriarte**. 95 urte. 2022-06-7.
- **Francisco Iglesias Chico**. 76 urte. 2022-06-7.
- **Alicia Gonzalez Acha**. 94 urte. 2022-06-7.

Jaiotakoak

- **Kepa Guruzeta Polo**. 2022-05-26.
- **Maria El Fanidi**. 2022-05-27.
- **Sare Landa Lopez de Viñaspre**. 2022-05-31.
- **Ani Oria Iñan**. 2022-06-3.
- **Markel Diego El Hassouni**. 2022-06-3.
- **Mirari Berrondo Galvan**. 2022-06-3.



Arane-Errekatxu bitarteko sarbidea itxi egin dute, urtea amaitu arte

Errekatxu, Bista Eder eta Sansaburu inguruan egiten ari diren lanek hainbat aldaketa eragin dituzte ibilgailuen eta oinezkoen trafikoan. Lan hauek inguruko bizilagunen artean sor ditzakeen eragozpenak aztertu ostean, Udalak etxebizitzasustapen berriaren ardura duen eraikitzaileari pasabide bat egitea eskatu dio, “kale horietatik erdigunera sarbide zuzena bermatzeko, betiere, obrek hori egitea ahalbidetzen badute”.

Jakinarazi dutenez, “aste honetatik hasita, zabalik egongo da

Errekatxutik Bista Edererako espaloietakoko bat, eta, horretarako, behar den babes jarri da, bertatik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Behin-behineko oinezkoentzako pasabide hori ahalik eta denborarik gehiengan egongo da zabalik, harik eta obren gauzapean ukten duen arte. Hala eta guztiz ere, Errekatxu eta Eulogio Garate arteko pasabide bat egiteko aukera aztertzen ari da, gaur egungo behin-behineko oinezkoen pasabidea itxi behar denerako, eragozpenak murrizteko”.

Eibarko zarata mailak nabarmen egin du behera azken 13 urteetan

Aste honetan aurkeztu du Udalak Eibarko Zarata Mapa berria eta, emandako datuen arabera, eibartarren %7,3k zarata maila handia jasaten du. 2009. urteko azterketekin alderatuz, zarata maila nabarmen jaitsi dela esan daiteke, orduan kopurua %37,7koa zelako. Udalaren arabera, “horretan lagundu dute, besteak beste,

trenbidearen estaldura partzialak, saihezbidea egin izanak edo erdiguneko abiadura-murriztapenak”. Azterketaren datuen arabera, trafikoari dagokionez, zarata maila altuena duten tokiak, gaur egun, AP-8 autobideak eragindako guneei dagozkie, nagusiki Iparragirre, Fray Martin Mallea eta Urki Kurutzekua inguruetan.

Bankuak ortzadarraren koloreekin margotzeko gonbidapena

Ekainaren 28a LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko eguna ospatuko denez, iaz bezala, egun tarte horretan, herriko banku batzuk ortzadarraren koloreekin margotzeko gonbitea egin dute Berdintasun Zerbitzua-Andretxeatik. Adierazi dutenez, “ekintza honen helburua LGTBI+ eskubideak giza-eskubideak gisa aldarrikatzea eta Eibar LGTBI+fobiarik gabeko hiri gisa ikusaraztea da”. Egundak ordutegi hauetan margotuko dira bankuak (euriagatik aldaketak egon daitezke): ekainaren 13, 16, 17, 20 eta 23an, 09:30etik 12:30era. Parte hartzeko andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo 688 853 440 / 943 543 938 telefonoetara deitu daiteke.

Bideoa ikusteko:



Paella ederrak prestatu zituzten Urkiko jaietan

Barixakuan eta zapatuan botatako txingorradek ez zuten lortu Urkiko jaietako gogoak kikitzea eta ederto ibili ziren asteburu osoan. Domekako paella lehiaketak, beti bezala, oso harrera ona izan zuen eta parte-hartzaileek oso maila altua erakutsi zuten beste behin.



Pentsiodunen bizikleta martxa martitzenean ailegatuko da Eibarrera

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Euskal Herriari bira emango dion bizikleta martxa antolatu du, “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoak eta zaintza lana partekatzeari” aldarrikatzeko. Ekainaren 13an hasi eta 25ean amaituko den bizikleta martxa bigarren egunean, martitzenean, ailegatuko da Eibarrera: 11:00etan Azitainetik sartuko da eta, herriko kaleak zeharkatu eta gero, Toribio Etxebarria kalean, anbulatorio parean egingo diote

harrera Eibarko pentsiodunek. Jarraian, denak elkarrekin Untzagaraino joango dira eta bertan, jubilatuen aldean, komunikatua irakurri eta txistorra-jana egingo dute. Ondoren, Elgoibarrera joango dira, han bazkaldu eta etapa Ondarroan amaitzeko. Eibarko Pentsionista Taldeak gogorarazi duenez, lau urte baino gehiago daramatzate astero Euskal Herriko 70 herri baino gehiagotan mobilizatzen, “pentsio publiko eta duinen alde”.

Kulturarteko pintxopotea egingo da bihar Untzagan

“No voluntariado de mujeres de la luna” proiektuko kideek kulturarteko pintxopotea antolatu dute biharko, 12:30etik 16:30era Untzagan. Ekimenarekin “elkarrean arteko sareak sortzea eta Eibarko kultura aniztasunari buruzko kontzientzia garatzea” lortu nahi dute. Gastronomiaren bidez kulturartekotasunaz gozatzera gonbidatu nahi dute jende guztia.



Aldarrikapen feminista kalera aterako dute bihar, Kalean Ehuntzeko Egunarekin bat

Bihar, zapatua, Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna dela eta, 10:00etatik 13:00era bitartean anbulatorio pareko parkean egingo den ekitaldiarekin bat egitera animatu nahi dituzte herritarrak. “Kaleak gureak dira” goiburuari jarraituta, goiza bertan emango dute, ehuntzen (hala ere, parte hartzeko ez da beharrezkoa ehuntzen jakitea). Helburuak “ehuntzearen artea aldarrikapen feministarako

tresna bihurtzea, eremu publikora ateratzea eta, auzoa eraikitze eta ehuntzeko, harreman afektibo baliokidea ematea” dira. 20 erakunde baino gehiagok egin dute bat ekimenarekin, Euskadiko zazpi puntutan. Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, “Indarkeria Sexistaren Aurkako Mataxak” elkartetik #puntuetakitto mugimendua indartu nahi izan dute.



Udalak R. Lapeyraren eraikina erostean kontra dago Ekialdea Bai auzo elkarteak

No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai Auzo Elkartetik beraien haserrea adierazi nahi dute, “Udalak Barrena kaleko Rafael Lapeyra fabrika zaharra erosi nahi duelako, ondoren Iñaki Arriola alkate-ohiak zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari lagatzeko, babes ofizialeko etxeak eraikitzeko”. Elkartearen arabera, “hau Estaziño eta Azitain arteko trenbidearen estaltzeko proiektu polemikoaren ondorioz gertatzen da” eta. Salatu dutenez, “Udalak erosi nahi duen eraikinaren % 51ren jabea Kajoi Bat S.L. da. Pablo Pedro Borde da ugazaba eta ahalduna, berriz, Arrate Bilbao Barinaga, bere emaztea eta Jose Ignacio Barinaga osabarrekin batera inputatua zabortegia-

ren kasuan. Bigarren jabea (%49) Proyecto Eraikin PM-3000 S.L. da. Ignacio Borde ugazaba Kajoi Bat SL enpresaren jabeen anaia eta koinatua da, hurrenez hurren. Bixia bada ere, Juki higiezin enagentzia arduratu zen Electrociclosko pisuak (2008) orain eskaintzen zaizkien familiei saltzeaz, Lapeyraren fabrika zaharrean egin nahi dituzten etxean truke. Eta, gainera, Electrocicloseko etxeak Barinaga familiaren antzinako industria-orubean eraiki ziren”. Elkarteko kideek maiatzaren 30eko Udaleko osoko bilkuran parte hartu zuten, “berriz ere salatzeko 20 milioi eurotik gora xahutuko direla trenbidea kilometro bateko luzeeran estaltzeko”.

Bihar zabalduko dute kanpoko igerilekua

Bihar hasiko dira kanpoko igerilekua zabaltzen eta uda osoan, irailearen 11ra arte, egunero erabili ahal izango da zerbitzua. Ekainean eta uztailean 10:30etik 20:30era zabalduko dute igerilekua eta abuztuaren 1etik aurrera, berriz, 10:30etik

20:00etara. Eibarko Kirol Patronatutik gogorarazi dutenez, kanpoko igerilekurako abonoak daude. Bestalde, gogoratu umeen igeriketa ikastaroetarako aurreinskripzioa ekainaren 19ra arte egin daitekeela eta zozketa 20an izango da.



Lehenbailehen izena emateko eskatu dute, autobusa antolatzeko

Uztailaren 2an egingo den Piriñoetako Bidea dela eta, Gure Eskuk doako autobusak jarriko ditu Eibartik, 18:30ak inguruan (Soraluzetik 18:00etan) eta 20:00ak inguruan iritsiko dira Etxalarrera. Han mokadutxoak jateko aukera egongo da Kokorira igo aurretik. Mendiak 22:00etan argiztatuiko dira eta gero, ekimena amaitu ondoren, autobusak 00:00ak inguruan irtengo dira Eibarrerantz.

Interneten gureesku.eus webgunean eman daiteke izena eta, bestela, Deporren, hilaren 15ean eta 22an. Antolaketa lanak errazte aldera, joateko asmoa dutenei lehenbailehen izena emateko eskatu dute antolatzaileek.

Hasi dira saltzen Sanjuanetako herri bazkarirako tiketak

Atzoko pintxopotean aurkeztu zuen Jaixak Herrixak Herrixandako taldeak aurtengo Sanjuanetarako prestatu duen jai-egitaraua eta, horrekin batera, herri-bazkarirako tiketak saltzen hasi ziren. Azaldu dutenez, bakoitzak gehienez lau tiket erosi ahal izango ditu. Bestalde, dirua bueltan hartzeko edo deskontua egiteko aukera egongo da. Aurten XV. Gazte Eguna ospatuko dutela eta, berritasunak egongo dira.

Eibar euskararen erdigune

Euskaltzaindiak Eibarren egingo du ekaineko osoko bilkura, hilaren 22an hain zuzen ere. Data berezia da, izan ere, Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena betetzen baita egun horretan. Horregatik, San Martinek euskararen alde (eta bestela ere) egindako lana gogoratzeke, omenaldia egingo diote udaletxean.

Euskaltzaindiak osoko bilkura egin ohi du hilero eta hurrengo Eibarren egingo dute. “Euskaltzain Oso guztiak bilduko gara bertan”, esan digu Andres Urrutia Euskaltzainburuak. Bilera arrunt hau 10:00etatik 12:00ak arte egingo da udaletxean eta, ondoren, Euskaltzaindia Eibarrera ekarriko duen arrazoi nagusiaren txanda etorriko da: Juan San Martinen omenaldia.

Omenaldian Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak hartuko dute parte. “Jon Iraola alkateak berba batzuk egingo ditu, nik neuk ere hitz egingo dut, eta gero, Luis Alberto Aranberri ‘Amatiño’ Ohorezko Euskaltzainak eta Jabier Kaltzakorta Euskaltzain Osoak hitzaldiak eskainiko dituzte”, Urrutiaren berbetan.

Amatiñoren eta Kaltzakortaren hitzaldien helburua “Juanito San Martin zein izan zen eta zer egin zuen” gogoratzea da, Euskal-



tzainburuak esan digunez. “Juanito (horrela esaten genion) gutzat, Euskaltzainen ikuspegitik eta euskararen munduan, guztizko pertsonalitatea izan zen. Nortasun handiko pertsona zen, ‘Eibarkua’, gehitzen du.

Urrutiaren ustez San Martinen izena ahaztu egiten da Euskara Batuaren prozesuan, “baina garrantzia handia izan zuen”, bere iritziz, “Euskara Batuaren bultzatzaile nagusienetakoa izan zen”.

Euskaltzainburuak dioenez, “Juanitok beti izan zuen argi Euskara Batuaren premia eta beharra, bere erroei eta sustraiei uko egin gabe. Inolako artifizialkeriarik gabe gainera. Hau da, berak oso argi zuen bertoko euskara beharrezkoa zela, baina bide berean argi zeukan jendea ezin zitekeela euskalkerietan ibili, nolabait esatearren, euskalkerietan Euskara Batuari muzin egiteko edo Euskara Batuari uko egiteko. Beste batzuk



Euskaltzaindiak Juan San Martín omenduko du Eibarren egingo den ekitaldian.

San Martinen lorratetik joan dira eta Euskaltzaindiak ere bide horretatik jarraitzen du”.

Oroegilea eta ia orojakina

San Martinek egindakoa gogoratzen jarrita, Euskaltzainburuak hainbat gauza azpimarratzen ditu. “Guztiok ezagutzen dugu haren “Zirikadak” eta “Eztenkadak” liburua, baina Juanito hori baino askoz gehiago izan zen. Kultur eragile handia izan zen, euskararen ikuspegitik bultzada handia eman zion kulturari, nazioarteko ikuspegia izan zuen, kanpoko hainbat idazle-
ren itzulpenak suspertu zituen (katalanak, galegoak...), kazetaria ere izan zen, etnografoa, idazlea, Arartekoa, Euskal Idazleen Elkarteko sustatzaile eta suspertzaileetako bat...”, zerrendatzen du Urrutiak. “Hain zuzen ere, ni Euskal Idazleen Elkarteko kide banaiz, berari esker da”, aitortu digu.

>>> "Juan San Martinek beti izan zuen argi Euskara Batuaren premia eta beharra, bere erroei eta sustraiei uko egin gabe"

>>> "San Martín erantzukizunak hartzeko eta hauek aurrera eramateko gogoia zuen gizona zen"

Urrutiak horrela definitzen du San Martín: “Oroegilea, ia orojakilea eta bere kabuz egindakoa. Hau da, ‘self made man’ izan zen neurri handi batean (inoren laguntzarik gabe aurrera atera zen gizona)”. “Euskaltzaindian egin zituen azken urteetan bera ezagutzeko zortea izan nuen eta berarekin hainbat gauza partekatu

ahal izan nituen”, gogoratzen du Euskaltzainburuak.

San Martinen ezagutzak eta jakinduria albo batera lagata, beste alderdi bat azpimarratzen du Urrutiak: “Gobernu gizona izateko gogoia eta ukitua zuen. Hau da, erantzukizunak hartzeko eta hauek aurrera eramateko gogoia zuen gizona zen”.



Euskaltzaindia moderna

Euskaltzaindiak 102 urte ditu, baina gaur egun-ko erakundea izaten saiatzen da, bere eraginak egunerokoan baitu islada. “San Martinek eta bere belaunaldikoek markatutako ildotik jarraitzen dugu eta, ildo horretan, gaur egun kezka berriak ditugu: teknologia berriak, adimen artifiziala... Baina funtsean ideia berbera dago: euskararen batasunak salbatuko du euskara norbaitek salbatu beharra badauka”, diosku Urrutiak. Horrela, gaur egungo baliabideak erabiltzen dituzte, “beti egin izan duguna egiteko”.

Euskararen batasuna lortzea da Euskaltzaindiaren lehen helburua. “Ez batasun inposatua, batasun sortua baizik., lurralde, euskalki eta hizkuntza ezberdinetatik bilduta”, argitu digu Urrutiak. “Euskararen nondik norakoak defendatzea, zabaltzea eta hedatzea”, gehitzen du.

Gizartera hurbiltzeko asmoz, mendeurrena bete zuenean gehiago zabaltzeko hautua egin zuen Euskaltzaindiak. “Gizarteari begira egin behar dugu lan eta, horretarako, gure emaitzak gizarteratu egin behar ditugu”, dio Euskaltzainburuak.

LUIS ALBERTO ARANBERRI 'AMATIÑO' •

Ohorezko Euskaltzaina

“Juaniton etxia euskal erreferentzia bat izan zuan Euskal Herri guztian”

Nolako hitzaldia eskainiko duzu hilaren 22an?

Euskaltzaindiak eskatu jestak nik gertutik ezagutu neban Juanito gogoratzea. Eta hau dok, praktikan, 1965etik 1975era bitarteko hamarkadia. Nik 25 urte inguru eta berak 50-edo zittuala. Juanito izan zuan espeleologoa, mendizalea, argazkilaria, etnografoa, arkeologoa, ikertzailea, biltzailea, poeta, kazetaria, itzultzailea, hizlaria, euskaltzaina, Arartekoa... ez dago 20 minutuan Juanitoren guztiak biltzea. Inoiz esan izan denez: “Juanitok, Untzaga plazan sevillanak dantzan eñ eta elixan bandeja pasau ezik, danetik eñ jua”.

Nola gogoratzen duzu San Martin?

Juanitoren balioaz konturatzeko gogoan izan behar dok, gaur egun 2.000 liburu inguru argitaratzen dirala euskeraz urtero, baiña Juanitoren gazte-denboran ezta hamar be. Oin irratitelebista, egunkarixa, aldizkarixak, internet, sare sozialak eta



Google daoak. Orduan ez zegoan horrelakorik ezer. Hain zuzen be, Juanito izan zuan gure informaziño-iturri eta gure wikipedia. 1964rako Juanito Osoko Euskaltzain egin juen eta bera zuan, neretzat behintzat, euskal munduarekiko loturia. Ni kazetari izatia, neurriren batian, Juanitori zor jetsat.

Beraz, demaseko eragina izan zuen.

Juaniton etxia, Mekolan, euskal erreferentzia bat izan zuan Euskal Herri guztian. Bertara juaten zittuan bisitari orduko idazle, intelektual, abade, artista eta gaiñerakuak. Antton Narbaizak esanda: “Juaniton etxian beti dakizu noiz sartzen zaran, baina sekula ez dakizu, ostera, noiz urtengo dozun”.

1889tik 1988ra bitarteko Eibarko historia iruditan

Atzo (ekainak 9) Artxiboen Nazioarteko Eguna izan zela eta, Udal Artxiboak argazki zaharren proiektzioa egingo zuen, horrela udaletxeko azken pisuan dagoen Artxiboaren zati txiki bat kalean erakusteko. Efemeridearen inguruan antolatzen diren ekimenek artxiboen garrantzia azpimarratu nahi dute, ikerketarekin eta memoria historiko eta kulturala gordetzearekin duten lotura nabarmenduz.



Artxiboen Nazioarteko Eguna gogoratzeko prestatu duten irudi bildumaren aurkezpena egin zuten barixakuan Jon Iraola alkateak eta Yolanda Ruiz Eibarko Udal Artxiboaren arduradunak. Azken honek azaldutakoari jarraituz, ordubete inguruko iraupena duen proiektzioa osatzeko 656 argazki aukeratu dituzte, Udal Artxiboan gordeta dauden 300.000 argazki baino gehiagoren artean. Kronologikoki bost bloketan ordenatu dituzte, ikusleei gure herriaren 1889tik 1988ra bitarteko historia irudiz ezagutzeko aukera emateko.

Lehen atalak 1899. eta 1930. urteen arteko argazkigintzaren iratzaraldia jasotzen du. Bigarren atalean 1931. urtetik 1937. urtera arteko irudiak bildu dituzte. Hirugarren ataleko irudiak 1938tik 1950era arteko urtekoak dira. Laugarren atala 1950etik 1970era bitartera doa. Eta proiektzioa 70eko eta 80ko krisi eta trantsiziozko hamarkadak erakutsiz amaitzen da.

Atzo egindako lau emanaldietan Castrillo-Ortuoste argazkilari-familiaren irudiak, Indalecio Ojangurenenak, Heraclio Echeverría medikuarenak eta Beningo Plazaolaren artxibokoak erakutsi zituzten, partikularrek Udal Artxiboari lagatako edo dohaintza bidez emandako beste irudi askorekin batera: “Besteak beste, Eugenio Ortuoste, David Arriola,

Cándido Eguren, Agustina Elorza, Aurora Mendizabal, Arantza Arrieta, Javier Untzetabarrenetxea, Sarasua familia, Gorosabel familia eta Muñoa familia aipatu daitezke”. Izan ere, Artxiboa osatu eta aberasten duten 60 bildumatik gora daude.

Argazkiez gain, partikularrek lagatako bideo zatiak ikusi ahal dira prestatu duten proiektioan. Bestalde, irudiei laguntzeko Eibarko musika eta kantuak erabili dituzte: Astelena frontoian orain dela hogeitun urte egin zen “Arrateko Zelaiko Kantak” kontzertukoak, Lazpita hirukotearen grabazioak, eta Ustekabe fanfarrearen “Eibarko Kantak” diskokoak. Jarduera horrekin, “existitu zen eta gutxi batzuen memorian bakarrik dagoen herri bat berreskuratu” nahi du Artxiboak.

Eibarko Udal Artxiboan 300.000 argazki baino gehiago daude eta asko ezezagunak dira herritar gehienontzat

Udal Artxiboko arduradunaren berbetan, “Eibarko Udal Artxiboa, mendez mende gure herriko Udalak sortu dituen dokumentuek eta dohaintza bidez denboran zehar jaso diren beste hainbat dokumentu osatzen dute. Artxiboaren zeregina Eibarko Udalak sortzen duen dokumentazioa batzea, zaintzea, antolatzea eta zabaltzea da, dokumentazio hori herritarren esku jarritz, ikerketarako, informazioa

jasotzeko, dokumentuak aztertzeko edo administrazio-kontuak argitzeko erabil dezaten, bai eta Udal barruko zerbitzuek ere, beraien lanerako”.

Artxiboaren inguruko lehen berriak 1548ko akta bati dagozkio, zeinean “arca del conçejo de dos cerraduras” aipatzen baita, hau da, herriaren eskritura eta pribilegio guztiak gordetzeko erabiltzen zen kutxa.

Artxiboa udaletxeko laugarren solairuan dago eta sarbidea libre da herritar guztientzat. Artxibozainaren berbetan, “Udal Artxiboak herriaren dokumentu-ondarearen leiho bat izan nahi du, kanpora begira, egiaztatutako kalitatezko informazio eskaini eta herritarrei ingurune digital berrian sartu eta kontsultatzeko aukera emango diena”.

10 Kia Egun.

Ekainaren 9tik 20ra.




📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 🌐 www.kia.com

Konsumitzaile eskaintzaren baldintzak eta betekizunak www.kia.com helbidean. Eskaintza honek Penintsulako, Balesar Lharretako, Melillako eta Andorako konfrentzionario sare osorako balio du.

Zirika Zirkusek zirko-tailerra egingo du Urkizun

Datorren egueaztenean, ekainak 15, zirkuaren mundua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu Gurasoak Berbetan egitasmoaren ikasturte amaierako jaialdian. Zirkuaren hainbat arlo lantzen dituen jarduera eskainiko du Zirika Zirkusek Urkizuko parkean arratsaldeko 17:00etatik 18:30era. Zirkoko oreka- eta akrobazia-jokoek eta ondo pasatzeko gogoak bat egingo dute ekimenean. Tailerrera hurbilduko direnek akrobaziak eta akroportekak nola egiten diren ikasteko aukera



izango dute eta zirkoko teknikak ikasteko erabiltzen den material ugari izango dute eskura: oreka kablea, orekari eusteko pelotoia, trapezioa, jostailuak, koltxonetak... Horrekin guztiarekin, ondo pasatzeaz gain, koordinazioa, malgutasuna, erritmoa eta beste hamaika gauza ikasi eta landuko dira. Parte-

hartzea doan da eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hartu ahal izango dute parte.

Datorren asteko ekintza honekin ikasturteari agur esango dio Gurasoak Berbetan programak. Familia-giroa euskalduntzeko egitasmoa urrian jarriko da berriro ere martxan.

Eibarko berbalagunak Hendaian izan dira Mintza Eguna ospatzen

“Probatu ez duenak... ez daki zen den hau!” lelopean ospatu zen joan den domekan Mintza Eguna, Euskal Herri osoko berbalagunak elkartzen dituen egun handia. Eibarko hamar berbalagun bertan izan ziren, jai giroan eta eguraldi zoragarriak lagunduta Hendaian ospatu zen egunean. Txistulariak, Hendaia ezagutzeko bisita gidatuak trenez eta oinez, bertsolariak, bazkaria, haurrentzako txokoa, erromeria... Aspertzeko astirik gabe eta bizi izandako esperientzia ederraz asetuta bueltatu ziren Eibarrera.



Hogeita hamar urte betetzear dira Donostiako Bagera Elkartek lehen mintzalagun taldeak martxan jarri zituenetik eta, gaur egun, 6.000 lagunetik gora elkartzen dira astero Euskal Herrian euskarazko mintzapraktika egiteko. Azkeneko urteetan ohitura da urtean behin Euskal Herri osoko berbalagunak Mintza Egunean elkartzea. Elkar ezagutzeko eta esperientziak par-

tekatzeko aukera bikaina, dudarik gabe. Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan programak elkartzen ditu berbalagunak. Ehun lagun inguru mugitzen dira egitasmoaren bueltan. Euskara giro lasai eta informalean praktikatzeko aukera eskaintzen du, astean behin elkartzen diren taldeen bitartez. Horrez gainera, bestelako jarduerak ere egiten dituzte urtean zehar.



ARACELI GUERRERO

Beti modan, baita lan bila gabiltzanean ere

Gure jendarteak azken joeren inguruan etengabe adi egotea eskatzen digu, bazterrean ez geratzeko: arropa-joerak, modan dauden ile-mozketak, mugikorretarako app berriak, gaurkotasuneko kirolak (kaixo padel, agur petanka)... Eta horrela milaka eta milaka adibide jarri ditzakegu. Orduan, zergatik izango zen desberdina lana bilatzeko orduan?

Duela hainbat urte, atez ate joaten zen, curriculuma eskuan, tailerretan langileak behar ote zituzten galdezka. Orain, datuak babesteko legearen, pandemiaren eta teknologien erabileraren ondorioz, ia ezinezkoa da enpresa batek curriculum vitae paperean jasotzea. Gainera, ez dago gasolina merke autoarekin industrialdetik industrialdera ibiltzeko. Nola egingo dugu orduan?

Curriculumari dagokionez, proposena diseinuzko curriculum bat egitea izango litzateke. Badaude, horretarako, interesgarriak diren aplikazioak, Canva esaterako. Kontuan izan behar da orrialde bakarra izan behar dela eta nabarmendu nahi diren gauzak leku pribilegiatuan jarri behar direla.

Curriculumarekin batera, marka pertsonala garatu behar da. Hau da, lana bilatzeko web orrietan, sare sozialetan eta enpresen plataformetan erabili behar diren irudiak (argazkia, adibidez) eta testuak pentsatu eta landu. Leku guztietan argazki eta testu berberak edukitzea komeniko litzateke.

Hori guztia prest dagoenean, lana bilatzen has gaitzke. Baina, nondik? Izan ere, pertsonaren profilarren, helburuen eta gaitasunen arabera erabilgarriagoak izango dira lana bilatzeko kanal batzuk edo beste batzuk. Adibidez, kualifikatuak diren lanpostuetarako ezinbestekoa da LinkedIn erabiltzea edo Infojobs eraginkorra izan daiteke eskaintzak ikusteko sarritan sartzen diren pertsonentzako, baina ez noizean behin sartzen direnentzako.

Ikusi daitekeenez, lana bilatzeari dagokionez, horretan ere modan egon behar dugu; diseinuzko curriculuma, marka pertsonala, lana topatzeko kanalak... Gauza horiek guztiak egiteko gai izan behar dugu eta, ezin badugu, Eibarren badago non eskatu laguntza.

"Lana bilatzeari dagokionez, horretan ere modan egon behar dugu: diseinuzko curriculuma, marka pertsonala, lana topatzeko kanalak..."

“E-kirolekin pandemiak gertatu behar zen zerbait azeleratzea eta katalizatzea lortu du”

ALEX ROBLEÑO • E-kiroletan aditua



Orain dela lau urte guretzat ia berria zen e-kirolen (kirol elektronikoen) munduaren berri eman zigun Alex Robleño, Ermuko Izarra Centren eskaini zigun elkarrizketan. Lau urte geroago toki berean elkartu gara berarekin, hainbeste hazi den mundu honi buruz berriz ere berba egiteko.

Hego Korean, Herbehereetan... Alex Robleño toki askotan ibili da azken aldian, mila saltsatan dabilen gizona baita. Ekin-tzailea bokazioz, komunikazioaren eta e-kirolen munduan bidea egin du eibartarrak... eta nolako bidea! Etengabe aldatzen doan mundu honetan, hurrengo pausuak zein norabideetan eman behar diren ondo dakien pertsona da bera.

Orain dela lau urte guretzat nahiko ezezagunak ziren e-kirolen inguruan zenbait gauza argitu zenizkigun, baina orain ia denok dakigu zein den Ibai (Llanos), adibidez. Nolako eboluzioa izan du sektoreak urte hauetan?

Espainia oasia da e-kirolei dagokionez, alboko herrialdeak baino garatuago dagoelako zentzu horretan. Asko hazi den industria da, nahiz eta mundu mailan duen eragina oraindik txikia izan. Orain dela lau urte guzti hau iritsiko zela esaten nuen. Batzuek zioten ameslaria nintzela, beste batzuek, ordea, ‘frikia’ nintzela, edo gauza biak batera. Pandemiak gertatu behar zen zerbait azeleratzea eta katalizatzea lortu du.

Beraz, ez genuen ihesbiderik?

Modu naturalean eta organikoan hazten zihuan zerbait zen. Zenbateko probabilitatea dago 14 urte betetzen

dituen ume batek esku-pilota ikusteko abonua erosteko eta zenbateko probabilitatea Forniten ‘skin’ bat erosteko? Orain dela lau urte norbaitek oraindik argi ikusiko ez balu, pandemiaren ondoren uste dut erantzuna argi geratu dela. E-kirolak entretenimendua dira batez ere eta pandemian izugarri igo dira.

Nola mugitu zara hazkunde azkar horretan?

Omnis e-kirolen aholkularitza enpresarekin gauzak ez zaizkigu gaizki joan. Erakunde publikoek, enpresa pribatu garrantzitsuek eta erdi-mailako enpresek laguntza eskatu digute zenbait gauzatarako: bideo-joko jakin baten inguruko txapelketak antolatzeke, euren produktuak ingurune digitalean kokatzeko... Foballeko ligak gelditu zirenean FIFA Home Cup antolatu eta lau hizkuntzatan zabaldu genuen munduan zehar. Bertan, e-kiroletako jokalariek profesionalak, kazetariak eta foballari profesionalak jokatu zuten eta, hain zuzen ere, Hoffenheim taldeko Munas Dabbur foballariak irabazi zuen txapelketa birtuala.

E-kirolak eta kirol tradizionalak uztartu dituzue beraz?

Omnisekin enpresei, kirol-taldeeii eta, batzuetan, jokalariei laguntzen genien. Orduan, kirol tradizionalako jendearekin berba egin ondoren, e-kiroletako talentua ordezkatzeko duen enpresa bat sortzea pentsatu genuen: Focus. Gure lana ez da gure ordezkatuaren interesak





“E-kirolen industriaren ekosistema ikusgarria da Hego Korean”

“Hego Korean jasotakoarekin historia egiteko aukerak sortu zaizkidala uste dut”

defendatzea bakarrik. E-kirolak mundu digitalean garatzen direnez, mota guztietako estatistikak ditugu eskura eta talentua era automatikoan identifikatzeko modu bat garatu genuen. Hau, gure talentu-zorroa elikatzeke erabiltzeaz gain, klubean aurrean jokalariek duten balioa defendatzeko erabiltzen dugu. Horrela, 2021eko apirillean, e-kiroletako profesionalen nintzeanean nire entrenatzaile izan zena eta 2021an langabezian zegoena G2 taldera eramatea lortu genuen, hau da, Europako talderik onenera. Analista bezala dabil taldean, entrenatzaile nagusiaren laguntzaile bezala, baina berak baino baldintza hobetoak ditu.

Zuek garatutako metodoak funtzionatzen duen seinale da hori?

Lorpen horrek hauspotu egin gintuen, baina e-kirolen eskalan elitea ehuneko txikia da. Hau da, zure taldea ezin da Messi bezalako jokalariz bete, denetik egon behar da. Orduan, metodoa maila guztietako jokalariekin erabili dugu eta azken 12 hilabeteetan hamar kontratutik gora egin ditugu.

Hego Korean egon zara orain dela hilabete batzuk. Zertan zehazki?

Hego Korea e-kirolen epizentroa da eta ikasten egon naiz. Harremanak egiten eta e-kirolen munduak bertan nola funtzionatzen duen ikusten ibili nintzen, baina

baita Focus hobetzeko gauzak jasotzen ere. Gainera, hilabete eta erdi barru Euskal Encounterren aurkeztuko dudan dokumentala grabatu nuen bertan.

Zer ikasi behar dugu hego-korearrendik?

Hego Korea itzela da. Errespetua dago, segurtasuna, lapurretarik ez... eta, testuinguru horretan, e-kirolak beste edozein aktibitate bezala ulertzen dira. Oso kultura soziala da eta taldean ekintza asko egiten dituzte. Adibidez, lagun talde bat elkarrekin bazkaltzera joan daiteke, gero Scape Room batera eta, ondoren, PC Bang batean (ziberkafe moduko batean) zenbait orduz bideo-jokoetan aritzera. PC Bang hauek ultramodernoak dira eta lagunekin, bikotearekin edo edozeinekin joan zaitezke, mila aukera eskaintzen dituelako. PC Bangei esker, adibidez, bideo-joko guztietan jokatzeko aukera gehiago dute, jokalariek ez dituztelako jokoen lizentziak ordaindu behar. Horrek jokalarik asko egotea bermatzen du eta, ondorioz, normala da hainbeste jokalaririk oso jokalarik onak irtezea, hemen foballarekin gertatzen den moduan.

Beraz, bideo-jokoak euren gizartearen parte dira?

PC Bangen kontua hor dago, 90. hamarkadaren amaieratik telebista publikoan bideo-jokoek presentzia izan dute... Ondorioz, e-kirolen industriaren ekosistema ikusgarria da han. Horri oso gizarte eta hezkuntza



lehiakorrak gehitzen badizkiozu, eta derrigorrezko zerbitzu militarren ondorioz jokalarien garapena mugatua dela, ba pentsa. Bestetik, kirola kirola da jende askok praktikatzen duelako eta jarraipena duelako. Gutxi batzuk aberastu egiten dira, baina horretarako kirol horrek oinarri sendoak eduki behar ditu. Zentzu horretan, Hego Korean maila profesionalen jarduten duten e-kirolen akademia asko dago eta gero eta gehiago dira bideo-jokoetan jokatzeko dutenak. Mendebaldean han gertatzen dena ikusi dugu eta gauza askotan euren mailan jarri gara. Beste gauza batzuetan, ordea, ezin gara eurekin alderatu, oso kultura ezberdinak ditugulako eta den-dena ezin dugulako estrapolatu.

Nolako dokumentala grabatu duzu?

Geure buruari egin genion lehen galdera hau izan zen: 'Zein da Hego Koreako e-kiroletako artearen egoera?'. Galdera sakona denez, galdera zehatzagoak erantzuten saiatu gara. Adibidez, badago mendebaldean ia ezezaguna den bideo-joko bat, 2018az geroztik Hego Korean diru-sarrerara gehien lortu dituenak: Crossfire. Joko horrekin zer gertatzen den jakin nahi genuen eta jokoa garatu zuen enpresarekin egin genuen berba. Horrez gain, garaipen bolada izugarria duen talde batekin egon ginen eta barrutik ezagutu genuen. Egia esan, Hego Korea maitemindu nau. Negozioa eta dirua egiteko

aukerak ematen ditu, egunero ikasten duzu, eta Hego Korean jasotakoarekin historia egiteko aukerak sortu zaizkidalda uste dut.

Nondik nora joango da e-kirolen etorkizuna?

Zenbait galdera datorkizkit burura. Elon Muskek mundu guztian jarriko du Startlink? Mundu guztian egongo da 5G-a? Horrela bada, interesgarria izango da, latentzia murriztu egingo delako eta horrek gauza berriak egiteko aukera asko emango dituelako. Bestetik, ez dut uste errealitate birtualeko betaurrekoen iraultza iritsiko denik, nahiz eta erabilera haziko den. Horrez gain, 5G-arekin 'hodeiak' gero eta garrantzia gehiago izango du, konektagarritasuna asko hobetuko delako eta, ondorioz, bideokontsola berriek gogor borrokatu beharko dute, jendearen poltsikoetan izango dutelako kompetentzia. Bideo-jokoen demokratizazioaren inguruan zerumuga berria zabalitzen da, gailuak baino konektagarritasunak izango duelako garrantzia jokatzeko orduan. Bestalde, e-kirolen mundua asko profesionalizatuko da. Batzuek uste zuten Joko Olinpikoetan parte hartu nahi genuela, baina guk ez dugu nahi gaiaren inguruan ideiarik ez duen norbaitek araututako ezertan ibili nahi. Hala ere, e-kirolen inguruko testuinguru arautu bat beharrezkoa da, hazten ari den industria delako. Eredu horretan gauza asko dago egiteko.





Kirola Euskaraz Bizi
J-A. Mogel Ikastolan

2022/06/05

“Musika Eskolan gauza batzuk hobetu nahi ditugu eta berritasunak ekarri”

IRAIDE ANSORENA • Musika Eskolako zuzendaria



Iraide Ansorenak Markos Juaristiren lekukoa hartu du Musika Eskolaren zuzendaritzan, aro berri bati hasiera emanez. Ansorena perkusio irakaslea izan da hemen zenbait urtetan, baina orain kudeaketa kontuekin uztartuko ditu irakasle lanak.

Proiektu eta asmo berrieekin hasi du aurten bidea Ansorenak zuzendari bezala. Ikasurtea amaitu berri, irailera begira jarrita daude Musika Eskolan, gero eta eskaintza hobetua emateko asmoz. Horrela, matrikulatzeko epea zabalik dago musika egiten ikasi nahi duenarentzat.

Zer moduz lehen hilabeteak zuzendari moduan?

Urrian hasi nintzen, baina Markosekin batera trantsizioa egin dugu zuzendaritzan. Gainera, 2020 urteaz geroztik, Musika Eskola patronatua izatetik Udalaren parte izatera pasa da, eta horrek ere aldaketa positiboak ekarri ditu. Adibidez, orain Kultura sailaren barruan gaude eta Udalarekin komunikaziorako bideak errazagoak dira.

Nola iritsi zitzaizun zuzendari izateko aukera?

Perkusio irakaslea nintzen eta, Markos jubilatu behar zenez, sasoi berria etorriko zela ikusten genuen. Norbaitek hartu behar zuen kargua eta, egia esan, aspalditik baneukan gestionatzeko grina hori. Banekien egunen batean horrelako posturen batetan egongo

nintzela, baina ez nuen uste hain goiz iritsiko zenik.

Beraz, prest zeunden?

Agian ez kontzienteki, ez behintzat ni zuzendari izango nintzela pentsatuz, baina Musika Eskolan zein gauza egin zitezkeen pentsatzen hasia nintzen. Nahiko prozesu naturala izan da. Izan ere, beste herri batzuetan egin dut lan eta zenbait ekarpen egiteko aukera ikusten nuen.

Nolako ekarpenak? Zein ideia berri gustatuko litzazuke ezartzea?

Aro berri baten hasieran gaude. Ez bakarrik Markos jubilatzen delako, baita irakasle berriak kontratatu behar ditugulako ere. Aldaketa horrekin gauza batzuk hobetu eta berritasunak ekarri nahi ditugu. Adibidez, irakasgai berriak. Bestetik, musika eskola zabaltzea nahiko genuke. Pandemiarekin eta abar, pixka bat ezkutuan geratu garela pentsatzen dut. Gure egunerokoa gauza ikaragarri politak ikusten ditugu eta erakutsi egin behar ditugula uste dugu. Pandemian, adibidez, hainbat bideo egin nituen sare sozialen bitartez zabaltzeko. Harrezkero YouTubeko kanalean zenbait bideo jarri ditugu eta bide horretan



sakondu nahi dugu. Eta, azkenik, beste bi proiektu ditugu esku artean, Musika Eskola pertsona nagusiei zabaltzeko asmoz.

Inoiz ez da berandu musika egiten ikasteko?

Lan egin dudan beste herrietan pertsona nagusiekin egin dut lan eta European ere egiten da. Musika Eskola ez du umeentzat bakarrik, edozeinek hartu dezake parte. Musikak onura pila bat eskaintzen dizkie pertsona nagusiei.

Pertsona nagusiek musikaren inguruko jakintzak izan behar dituzte edo zerotik hasi daitezke?

Zerotik hasi daitezke. Agian eurentzat zaila izango da piano karrera egitea, baina musikan trebatu daitezke. Dagoeneko badugu 70 urte inguruko ikasleren bat eta berarentzat zoragarria da Musika Eskolako parte izatea.

Nolako metodologia erabiltzen duzue klaseetan?

Irakasle bakoitzak autonomia du klaseak prestatzeko. Horrela, irakasle bakoitza ezberdina denez, bakoitzak bere metodologia du, beti ere araudi baten barruan. Ezberdintasunak ezberdintasun, helburuak antzekoak dira.

Ikasleak noiz arte ibili ahal dira Musika Eskolan? Badago mugarik?

Ez dago eperik. Gainera, musikaren ikasketa eten-gabea da, ez da amaitzen. Ni neu ikasten nabil oraindik (masterra, egunero instrumentua ikasi...). Ikasle batzuk 20 urte egon dira gurekin, beste batzuk goi-mailako musika ikasketak egitera pasatu dira, beste batzuek ez dute denbora gehiegirik eta DBHn edo unibertsitate sasoian Musika Eskola lagatzen dute... Musikari denbora eskaini behar zaio eta gizarte honetan gero eta denbora gutxiago eta gero eta eskaintza gehiago dago. Denetik dago Musika Eskolan: 70 urte inguruko ikasleak, umeak, guraso izan berri direnak...

Nola moldatzen zarete ezaugarri eta behar ezberdineko ikasleen nahiak asetzeko?

Ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitzen gara, nahieran. Ez da lan erraza, baina oso aberatsa da. Klaseak banaka ematen ditugu (koroa, musika-hizkuntza... kenduta) eta ikasleen bizitzaren parte bilakatzen gara, asko konektatzen dugulako eta gure artean oso harreman estua sortzen delako.

Antzerki Laborategia, sortuz sentitu eta aske izan

Talde anitza, enpatikoa eta kohesionatua sortu da Eibarren antzerkiaren inguruan. Irene Hernandok gidatutako Antzerki Laborategia haur txikia da oraindik, lehen pausoak besterik ez ditu eman, baina lehen urte honetan egindako lana izugarria izan dela ikusi genuen aurreko astean Coliseoko taula gainean. Oso pozik daude esperientziarekin eta hurrengo ikasturtean antzerkia egiten jarraitzeko asmoa daukatela adierazi digute.



Umeen hiru talde igo ziren eszenatoki gainera. Ondoren, helduen hiru taldeen txanda izan zen. MAITANE CAMPOS

Haurrek eta helduek hartu dute parte ikasturte honetan zehar Antzerki Laborategian (22 haur eta 32 heldu). Aurreko astean talde guztiek egindako lana ikusteko aukera izan genuen Coliseo antzokian. Gehienentzat lehen aldia izan da eta hunkituta daude bizi izan duten guztiarekin. Irene Hernando aktore, zuzendari eta irakaslea oso pozik dago azken emaitzarekin, baina batez ere prozesua azpimarratzen du: "Garrantzi handia ematen zaio azken eguneko erakustaldiari eta oso ondo egon zen, baina garrantzitsuena prozesua da. Prozesu on bat ez badago, emaitza ez da hain ona izango."

Errebal Plazan daukagu hitzordua Antzerki Laborategiko kideekin. Ikasturtean ikasitakoaren eta Coliseoko esperientziaren inguruan galdetu nahi diegu. Irene Hernandorekin hiru edo lau lagun etortzea espero dugu eta gure harridurarako dozena bat etorri dira! Baina ez da harritzekoa: Antzerki Laborategiak asko eman die, talde ederra sortu dute, eta herritarrekin partekatu nahi dute ikasi eta disfrutatu dutena.

Saioa Vega eta Luken Garcia haurren taldekoak dira. Saioak "Kolore-Kolore" antzezlanean hartu zuen parte Coliseoko erakustaldian, eta "Espaziora Bidaia!" izenekoan Lukenek. Ikasturtean lagun berriak egin dituztela eta Irenekin antzerkiari buruzko gauza asko ikasi dutela esan digute. Interpretazioaren mundua



Oso pozik daude esperientziarekin eta hurrengo ikasturtean antzerkia egiten jarraitzeko asmoa daukate. ANA AIZPURUA

asko gustatzen zaie eta jarraitzeko asmoa daukate. "Coliseoan hasieran oso urduri geunden, baina hasieran bakarrik, gero oso ondo pasatu genuen eta inoiz baino gehiago disfrutatu genuen", esan digute pozik. Agian haur hauek orandik ez dituzte antzerkiaren onurak ondo ezagutuko (irudimena estimulatu du, adierazpen-gaitasunak garatzen laguntzen du, gizarte-trebetasunak hobetzen laguntzen du, autoestimua indartzen du...), baina gauza bat argi eta garbi daukate: primeran pasatzen dute eta ondo sentitzen dira.

Gehiagorako gogoarekin

Helduen taldekoa da Elena Richard eta "Bizitza is Life" lanean ikusi genuen helduen saioan. "Lehenengo egunetik oso zoriontsua izan naiz Antzerki Laborategian. Terapia bat izan da: arazo eta kezka guztiak lagatzen ditut kanpoan jardueraz gozatzeko. Gainera, orain konfidantza gehiago daukat niregan. Lehenengo momentutik engantxatuta gelditu nintzen Irenerekin eta sekulako taldea osatu dugu guztion artean. Gehiagorako gogoarekin geratu naiz. Esperientzia izugarria izan da. Oraindik hunkituta nago Coliseoan egin genuenarekin, oso harro nago egin dugunaz", azaldu digu Elenak.

Helduen beste proposamen bat 'Clown Town' izan zen eta, izenburuarengatik atzeman daitekeen bezala, clown teknika erabili zuten. Bertan ikusi genuen Koro Moso. Irundarra da, baina orain dela 30 urte bizi da Eibarren. Bere semeari beti gustatu zaio antzerkia eta Ermura eramaten zuen Korok. "Niretzako antzerkia beti izan da erronka bat, egiteko neukan zerbait, eta horregatik eman nuen izena Antzerki Laborategian.

Ghienentzat lehen esperientzia izan da eta pozik eta hunkituta daude bizi izan duten guztiarekin

TALDEKIDEEKIN
EGINDAKO BIDEOA
IKUSTEKO:





Momentu barregarriak eta hunkigarriak eman ziren taula gainean.
MAITANE CAMPOS

Sortu den talde-giroa eta Antzerki Laborategiak eman dien konfidantza eta askatasuna azpimarratzen dute



Txikiak hiru antzezlan eskaini zituzten eta primeran aritu ziren.
MAITANE CAMPOS

Ikaragarriko esperientzia izan da, taldekideak ezin hobeak, eta irakaslea oso ona. Nahiko lotsatia naiz eta jendaurrean askatzen lagundu didate. Klaseak eta gero, gutako asko pote bat hartzen gelditzen ginen, eta elkar ezagutzeko aukera izan dugu", dio.

Antzerkiak aske sentitzen eta garapen pertsonala hobetzean laguntzen du, besteak beste. Hori gertatu zaio Mikel Elorzari. Berak esan digunez, "hasieran beldurrez eta lotsaz hasi nintzen eta, egia izan, oso esperientzia polita izan da. Balio izan dit fisikoki ere askatzeko, gorputzarekin adierazten ikasi baitugu. Gelditzen naiz, batez ere, talde-giroarekin eta eman digun konfidantza eta askatasunarekin". Esperientzia baliagarria izan dela dio Mikelek, eta herritarrak animatu nahi ditu antzerkigintzan parte hartzera.

Usua Bilbatuarentzat ere lehen aldia izan da: "betidanik izan dut antzerkirako grina, eta aukera aprobeztatu egin dut. Asko disfrutatu dut: jolastea izan da, berriro ere umea izatera bueltatzea eta lotsa galtzea", esan digu. Euren artean sortu den giroa eta irakaslearen papera azpimarratzen du Usuak: "Irene pasada bat da, ez bakarrik aktore moduan; asko transmititzen du eta bazenekien, egun txarra izanda ere, handik pozik eta energiaz beteta irtengo zinela".

Asteazkenetako txutea

Ioana Zabalbeaskoak txiki-txikitatik izan du antzerkia egiteko gogoia. Ama izan eta gero zerbait egin nahi zuen, eta betiko amets hori errealtate bihurtzeko umea zela pentsatu zuen. "Niretzako erronka handia izan da. Hasieran uste nuen ez nuela honetarako balio, baina, asteak pasatu ahala, asteazkeneko txutea bihurtu da. Konturatu naiz antzerkia izugarri gustatzen zaidala eta eszenatoki baten gainean nagoenean ni neu naizela. Taldea zoragarria da eta familian sentitu naiz".

Visi Fariñasek ere betidanik izan du antzerkiaren esperientzia bizitzeko gogoia. Visik azaldu digunez, "Irenek oso ondo eraman gaitu eta gure emozioak eta sentimenduak ateratzen oso ondo jakin du. Kristoren esperientzia izan da, errepikatzeko modukoa".

Izaro Zubikarai eta Iker Machin helduen taldeko gazteenetakoak dira eta "Tok-Tok" antzezlanean bikain aritu ziren. Ikerrentzako ez da berria, betidanik egon delako sartuta aste eszenikoen munduan: "Oso esperientzia zirrargarria izan da, aske sentitu naiz eta barre pila bat egin dut, eta hori da niretzako inportantea". Izaro probatzeko sartu zen taldean. Oso ondo sentitu da, aukera bikaina izan da berarentzat. "Jende berria ezagutu dut. Lotsatia naiz eta antzerkiak lagundu dit ausartagoa izaten", esan digu 17 urteko gazteak.

Eibar FT-k agur esan zion denboraldiari Arraten

Denboraldia modu onenean amaitu ez bada ere, Eibar FT-ko kide guztiek betiko bidetik amaitu zuten ikasturtea, Arrateko Amari lore-eskaintza eginez. Gutxinaka bada ere, tristorak paso egin behar diolako etorkizuneko ilusioari. Belarrondoko bikainak jaso ditu Eibar FT-k astebeteko epean. Zazpi egunetan bi, biak ere erabakigarriak, atzera egiterik lagatzen ez dutenak. Denboraldian zehar beti goi postuetan egon den taldeak ez du jakin azkenean fruitu emankorrik biltzen eta 1. Mailaren atzetan geratu da, hor aurrean zue-



nean. Alcorconen zelaian jasotako porrotak zaletu asko lur jota laga ondoren, Gironan irabazteak berriro berpiztu zituen Eibarzaleen ilusioak; orain Ipuruan bertan jaso dute zaplastekoa. Zirt edo zart egin beharreko uneetan ez asmatzeak ezin du ezkutatu taldeak aurrekoan igo zuenean baino puntu gehiago

eskuratu dituela oraingoan. Orain badakigu: taldeak 2. Mailan jarraituko du, emakumezkoen taldeari gertatuko zaion bezala. Ea bien kasuan zaletuen ilusioak berpizteko gauza diren, hauek ondo erakutsi zutelako klubarekin daudela, partidua amaitu eta ordu laurdenetik gora emanik lur jota zeuden jokalariek animatzen.

52 parte-hartzaile izan zituen Atzegikoekin antolatutako XII. Galdaramiño igoerak

Gure herriko lau gailur (Galdaramiño, Azkonabitz, Topinburu eta Ilordo) hartzen dituen mendi-lasterketak aipatutako 52 parte-hartzaile izan bazituen ere, Atzegiko beste 60 bat bildu ziren, Urkiko jaien barruko proba hori aprobetxatuta, beste bi mendi-martxa egiteko: "Azkarrak" taldekoek Topinburura igo zuten eta "Barraskiloak" taldekoek eurei egokitutako bide xumeagoa burutu

zuten. 18 kilometroko mendi-lasterketako irabazleak Aitor Madrazo (1h28:47) eta Patricia Amundarain (1h57:42) izan ziren. Eurekin osatu zuten podiuma Mikel Arriolak eta Eneko Azurmendik gizonetakoan eta Maite Solaunek eta Esther Velasco emakumezkoetan. Beteranoetan Igor Atxa eta Pilar Arriola izan ziren onenak eta 6. postuan sailkatu zen Iñigo Trokaola Eibarko onena.



Pilota partiduak: gaur Astelenan, bihar Amañan

Gaur, arratsaldeko 18:00etan hasiko den jaialdian, San Juan Txapelketako ligaxkako bi partiduren ondoren, Gipuzkoako Udaberri Txapelketako errendimendu mailako beste bat jokatuko da. Pilota Eskolako gazteen artekoak honakoak izango dira: Iso/Olaetxea vs Oñederra/Prieto eta Telleeria/Cortina vs Oñederra/Hernandez. Partidu nagusian Liher Gilek eta Aratz Amillategik eibartarrek finalerdietarako txartela bilatuko dute Lazkaoko bikotearen aurka.

Bihar, bestalde, Amañako frontoian bertako esku pilota txapelketaren finalak izango dira jokoan. Amaña es la Caña-k antolatzen duen txapelketan Deba bailarako ehun bat pilotarik hartu dute parte eta, goizeko 11:00etan hasita, lau final jokatuko dira, benjamin, alebin eta infail mailakoak, nesken finalerakin batera. Infantiletan Eibarko bi bikotek neurtuko dituzte indarrak.

Hodei Ezpeleta gazte onena izan zen Urrezko Aizkolariak-en lehia



Domeka eguerdian Azpeitiko Izarraitz frontoian jokaturako Urrezko Aizkolariak txapelketaren finalean, Eibarko aizkolaria erraz nagusitu zen 23 urtetik azpikoen mailan. Hodei Ezpeletak 7 minutu eta 49 segundu denbora behar izan zuen bere lanarekin amaitzeko eta minutu eta erditik gorako aldea atera zion Jokin Urretabizkaia “Basozabal” bigarrenari (9 minutu eta 21 segundo) eta bi eta erdi Xuban Kañamares hirugarrenari (10 minutu eta 20 segundo). Urrezko Aizkolariak txapelketan jokaturako beste finalerako emaitzak honakoak izan ziren: Julen Alberdi “Txikia IV” txapeldun izan zen ab-

solutuetan, Iker Vicente eta Mikel Larrañagaren aurretik; Nerea Arruti nagusitu zen emakumezkoetan, Nerea Sorondo eta Lalene Pikabeari aurrea hartuz; 19 urtetik beherakoenetan Isidro Velasco izan zen onena. Amaitzeko, harrijasotzaileen modalitatean, Jokin Eizmendik Goenatxo II.ari irabazi zion, eta Karmele Gisasola “Zelai III” Lur Errekondo eta Patricia Martin baino gehiago izan zen.

Hodei Ezpeleta iazko edizioan ere garaile izan zen, orduko hartan maila absolutuan; lehen mailako aizkolariak ez zuten parte hartu ekitaldi hartan eta berak jantzi zuen txapela.

Pirinioetarako bi eguneko irteera antolatu dute Deportiboko mendizaleek

Ekainaren 18/19ko astebururako iragarri dute Turón de Neouville eta Ref- de la Glere arteko ibilbide hori eta Deporrekoe Elgoibarko Morkaikoko mendizaleekin elkarlanean prestatutakoa da. Lehen egunean, zapatuan, 14 kilometroko ibilbidea osatuko dute, 1.660 metroko desnibelarekin. Tour nabop-etik Ref- de la Glereraino joango dira, bidean 2.506 metroko Pic Lurtet eta 2.547ko Hourquette Mounicot gaudituz. Bigarrenegun, domekan, Ref. de la Gleretik Plateau du Lienz-erajoko dute, tartean 3.035 metroko Turon de Neouville gaudituz. 16,5 kilometrotan 1.080 metroko desnibel positiboa gaudituko dute.



Goian, Finalista Eguneko sari-banaketa. Behean, Arlaban-Elgea irteerakoa.



Izen-ematea zabalik dago eta prezioak honakoak dira: bazkideen kasuan, 100 euro FEDME txartela dutenek eta 110 ez dute-

nek; eta bazkide ez direnen kasuan, 130 edo 150 euro, FEDME txartela izan edo ez izan, horren arabera. Prezio horretan sartzen da bidaia, alojamendua eta aterpeko afaria eta gosaria. Plaza kopurua mugatua da eta beharrezkoa da federatuta egotea Frantziako Pirinioetarako estaldurarekin eta “ezin da ahaztu kranpoiak, pioleta, kaskoa eta zakuizara eramatea, aterpean mantak egongo badira ere”. Zapatuko ordu txikietan irtengo dira.

Alberto Ferreirok Euskadiko squash txapela jantzi du Eibarko txapelketaren bezperetan

Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak Arrasateko Musakola kiroldegian jokaturako Euskadiko squash txapelketa aboslutua bereganatu zuen. Hilaren 4an eta 5ean jokaturako lehiaketa horretako maila absolutuan 35 jokalarik hartu zuten parte, tartean gure herriko hiru ordezkariak. Ferreiro bere onera itzuli dela erakutsi zuen eta, iazko uztailean izandako lesio baten ondorioz bizkarreko min etengabearekin urtebete igaro ondoren, bikain jokatu txapela jantzi zuen. Sergio Salgado bigarren txanda pasatu zen, azkenean 11. postuan amaitzeko. Eta Jon Losadak ezin izan zuen koadro nagusiko lehen txandarik gainditu. Bestalde,



emakumezkoetan Sandra Perez jokalaria nafarrak jantzi zuen txapela. Datorren asteburuan, bestalde, San Juan jaien bueltan jokatzeko Eibar Hiria Squash Txapelketaren edizio berri bat antolatu du Klub Deportiboak. Barixakuan, 17an, hasiko da eta hurrengo egunean, zapatuan, amaituko.

Asola Berri nagusi Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketan

Azpeitiko Floreagan amaitu zen aurreko zapatuan 51. Gipuzkoako Hiru-Txirlo Txapelketa eta Eibarko bolatukiko ordezkariak uzta bikaina jaso zuten. Horrela, Garikoitz Rodriguezek jantzi zuen txapela, Iñaki Gojenola taldekidea txirlo batera sailkatuz, eta euren atzetik geratu ziren Floreagako Gorka Etxaniz eta Bittor Ugarteburu eibartarra, hiru txirlora. Aurreko gutxi balitz, Ugarteburu beterano onena izan zen eta txapeldun binaka, Bittor Astigarraga lagun zuela. Asola Berriko bolarien artean izan da beste garailerik: Kepa Rodriguez jubenetan eta Ander Unamuno alebinetan txapeldun izan dira. Emakumezkoetan, azkenik, Enara Montiel hirugarren izan da, Aitziber Olaizola txapeldunaren-gandik bi txirlora.



Floreagako tiraldian 65 bolarik hartu zuten parte eta aipaturako Ugarteburu izan zen irabazlea, sei txirlo etzan zituen bakarra izanik. Bihar Lehendakari Saria izango da jokoan txapelketan sailkatutako 64 onenen parte-hartzeaz. Sorluzeko San Andresen jokaturako da goizeko 11:00etan hasita eta, Bolari Egurenaren barruan, Juan Cruz Arizaga "Korta" eta Juan Klaudio Unamuno omenduko dituzte. Ekitaldia biribiltzeko bazkaria izango dute Txurruka jatetxean.

Herriko atletek topera jarraitzen dute hainbat txapelketetako lehiaketetan

Azken hilabeteetan topera dihardute Klub Deportiboko atletak. Horrela, Donostiako Miniestadioan jokaturako Gipuzkoako maila absolutuko txapelketan jokatu zen absolutuko kategorian, Klub Deportiboak berderatzi ordezkari izan zituen, bost domina eskuratuz: urrezko lau eta zilarrezko bat. Txapela jantzi zuten Kepa Marquezek eta Garoa Magunazelaiak xabalinan, Karlitou Mendyk jauzi hirukoitzean eta Izaro



Bernedok martxan, Imanol Egidazu bigarren sailkatzen zen bitartean 400 metrotan. Azken horrek Valladoliden jokaturako federatuen Espainiako txapelketan ere bigarren amaitu zuen proba berean, Europako txapelketarako minimoa lortuz; berarekin izan zen Urko Martinez zortzigarren izan zen altueran. Durangon jokaturako Euskadiko txapelketa absolutoan, Garoa Magunazelaia bigarren izan zen xabalinan eta bere ahizpa Enara laugarren modalitate berean; Elene Arrazolak Espainiarako minimoa lortu zuen 16 urtetik beherakoetan 100 metroko proban. Azkenik, La Nucian jokaturako Espainiako Master txapelketan, Iñigo Egidazuk bere seriea irabazi zuen 100 m hesietan eta bigarren sailkatu zen erreleboetan.

Danborrekin kalera irten eta egurra emateko prest

Azken bi urteotan ezin izan da danborradarik egin, baina aurtengo Sanjuanetan berriz ere entzungo ditugu danbor hotsak herriko kaleetan. Beti bezala, San Juan bezperako sua Untzagan piztu eta, ekitaldia amaitu ondoren, gauerdian hasiko da nagusien danborrada, Untzagan, udaletxeko plazan. Umeena berriz, hurrengo egunean, San Juan eguneko arratsaldean zeharkatuko ditu herriko kaleak, Urkizutk abiatuta, Untzagaraino.



Danborradetan parte hartuko dutenek, ume eta nagusiek, asteak daramatzate prestatzen. Astean behin, eguaztenetan egiten dituzte entseguak, Bittor Sarasketa kalean Udalak duen lokalean, Beistegi eraikinean. Umeak apirileko azken astean hasi ziren eta helduak handik astebeterra, maiatzaren hasieran.

Jaietako danborrada biak antolatzeaz gain, entseguak zuzentzen duen Eibarko Danborrada taldeko Javi Zorrakinek azaldu digu nola ari diren jaietan kalean jotzeko prestatzen.

Asteroko entseguetan umeak izaten dira lehenak. Aurten 200 ume inguruk eman dute izena ekainaren 24ko danborradan irtetzeko: “Udaletik ikastetxe guztietara gutuna bidaltzen dute, entseguak noiz eta zelan egiten ditugun azaltzen, eta eurek esaten diete umeei geletan apuntatzeko. Pena daukat ikastolako jende gutxik eman duelako izena. Ez dakit zer gertatu den, baina lehen Aitor Amutxastegi arduratzen zen eta, berak laga zuenetik, askoz gutxiago etortzen dira”.

Nagusien kasuan ere, parte-hartzaile kopuruan ez da gorabehera handirik egongo: “200 baino gehiago izango dira, karrozan joango direnak eta Eibarko Musika Banda ere kontuan hartuz gero, 280 inguru. Beti egoten dira berri batzuk eta beste batzuk, berriz,

Elkarrizketaren eta entseguetako bideoak ikusteko:



Umeen danborradan 200 ume inguruk hartuko dute parte eta nagusien danborradan 280 bat lagun irtengo dira, karroza gainekoak eta Musika Bandako kideak barne

laga egiten dute, baina nahiko jende formalaz izaten da horretarako”.

Azken urteetan jo barik egon eta gero, jendea joteko gogoz dagoela dio Zorrakinek: “Txistulariekin batera, San Sebastian egunaren harira danborradako kontzertua egin genuen Coliseon eta ikusten zen jendea oso prest zegoela”.

Azken urteotako piezak joko dituzte aurten ere San Juanak aurretik, ekainaren 21ean egingo dute danborrada bien aurkezpena, eta egun horretan azalduko dituzte antolatzaileek ekitaldi bien inguruko xehetasun guztiak. Hala ere, Zorrakinek hainbat gauza aurreratu dizkigu: “Urteroko piezak joko ditugu, aurten ez dugu estrenorik egingo. Egitaraua 2019koa izango da, gutxi gorabehera. Igual aldaketa txikiren bat egingo dugu, ETB datorren ala ez, horren arabera. Etortzen ez badira, orduan pieza gutxiago joko ditugu Untzagan, bestela ibilbidea luzatu egiten delako, eta azkenerako jendea nekatu egiten da”.

Egun horretan ere izango da karrozaren aurkezpena, baina badakigu oraingoan zeintzuk izango diren bertan igota joateko ohorea izango duten gonbidatuak: “Berez, karroza Zuloagaren omenez prestatuta zegoen, mendeurrena zela eta, baina azkenean jaiak eta beste guztia bertan behera geratu ziren eta, beraz, karroza horrela gordeta geratu zen. Prestatuta geratu zen moduan aterako dugu kalera aurten eta bertan Udal Dibujo Eskolakoak, irakasleak eta ikasleak joango dira”. Azken batean, hauek ere, Zuloaga bezala, artista handiak baitira.



Astean behin joaten dira entseguetara, umeak lehenengo eta, jarraian, nagusiak, eta ordubetez aritzen dira jotzen. SILBIA HERNANDEZ




Skate erakustaldia eta kaleko dantzak, jaietarako girotzeko

Sanjuanak atejoka ditugu eta, girotzen joateko, biharko hainbat jarduera berezi antolatu ditu Udaleko Kultura sailak, herriko elkarte eta eragile batzuekin batera. Horrela, bihar 10:30etik 14:30era II. Skate erakustaldia egingo da Untzagan, Hop skate denda eta Ipar akademiaren parte-hartzearekin. Eguerdian, berriz, "Urban Dance" izeneko ekitaldiak beteko ditu erdialdeko kaleak (Julian Etxeberria, Zuloagararren, Eibarko Bizikleta Plaza, Untzaga, Ego-Gain, Toribio Etxebarria). Eta arratsaldean, 16:00etatik 21:00etara Eibarko VII. Break Dance eta New Style Txapelketak hartuko ditu Txalxta Zelaiko auditorioak.



Poesia-Musika IX. Gaua egingo da bihar Ibarkurutzen

Poesia eta musikari eskainitako gaua izango da biharko Ibarkurutzen. Maite Lorenzoren eskutik abiatu zen ekimenak bederatzigarren edizioa beteko du bihar eta, ohikoa denez, hainbat poetaren errezitaldiak zuzeneko musikarekin tartekatuko dira iturriaren parean egingo den saioan, iluntzeko 20:00etan hasi eta 22:00ak ailegatu bitartean.



Eibarko Koro Gaztearen esker ona kontzertuarengatik

Eibarko Koro Gazteak eskerrak eman nahi dizkio "ekainaren 2an izandako publiko zoragarriari. Egun horretan sentimendu asko bizi izan genituen, denak ederrak. Hainbeste emozio gora eta behera, oso garrantzitsuak diren pare bat hitz ahaztu zitzaizkigun. Beraz, lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Karnele Etxeberriari, Juanma Canori eta Maite Lorenzori egindako lan bikainarengatik. Beraiekin, beti bezala, barre egin genuen, baita emozioz bete gorputza ere. Ezin ditugu Naiara Azpeitia eta bere biolontxelo ahaztu, ezinbestekoak izan baitziren 'Bihotz' abestia hain hunkigarria izateko. 'Los cuatro', koroaren lagun minak, kolaboratzaileak aspalditik, funtsezkoak izan ziren baita ere. Hauek denak artista ikaragarriak dira eta proiektu honetan gurekin parte hartzera animatu ziren, duda barik. Mila esker!".



Soinu-banden kontzertua Musika Bandaren eskutik

James Bond, Blues Brothers, El Zorro, La Pantera Rosa eta beste zenbait pelikulen soinu-bandak joko ditu Eibarko Musika Bandak domekan, 12:30ean, Toribio Etxebarria kalean. Eurria egingez gero, kontzertua Errebal Plazan egingo da.



Barixakura arte egunero zabalduko dute Zeramika eta Dibujoko eskoletako erakusketa

Ekainaren 17ra arte bisitatu daiteke Zeramika eta Dibujoko Udal Eskolen erakusketa Portalean. Zeramika eskolako 30 ikasleek kurtsoa Esther Astarloarekin hasi eta Natalie Hickeyekin amaitu dute. Teknika ezberdinekin egindako 80 lan ipini dituzte ikusgai eta, Marrazki Eskolako ikasleekin batera, Gasteizko Artium Museoa bisitatu zuten Mariana Castillo Deballen lana izan dute inspirazio iturri. Marrazki Eskolako ikasleen lanetan, berriz, ikasturte honetan landutako gaia paisaia izan dela ikus daiteke. Teknika eta estilo ezberdinak landu dituzte eta kartel eta aire zabaleko lehiaketetara aurkeztutako hainbat lan ere ikus daitezke. Dibujoko Eskolan 131 ikasle daude Iratxe Unanue eta Leire Kareaga irakasleekin klaseak hartzen.



Artisten Elkartekoak Araban egon dira bidaiak kulturean

Eibarko Artisten Elkarteko bazkideek irteera kulturala egin zuten zapatuan. Goizean Añanako Gatz Harana ikusten egon ziren eta, bazkalostean, Estibalizko Andre Mariaren santutegian eta Arte Erromanikoa Interpretatzeko Zentroan bisita gidatua egin zuten.

Egun osorako egitarau kulturala antolatu dute tabernekin biharko

Bihar “Kaletarte” ekintza kulturala egingo da herriko kaleetan, hainbat tabernekin antolatuta. “Gorka eta Borja” bikotearen kontzertuak zabalduko du egitaraua, 12:00etan, Anbulatorio parean eta, Zuloagatarren kalean, grafitia margotu dute. 12:40ean, Eibarko Bizikleta plazan, “Emily Andrea” eta Saray Garciaren ikuskizuna egongo da eta, 13:30ean, Untzagan, Eibarko dantza eskolek saioa eskainiko dute. Ainhoa Arroita kontzertua emango du 18:30ean Toribio Etxebarrian, eta 19:00etan Mise en Abymek toki berean joko du.

Dantzari Eguna, gaur Untzagan



Kezka Dantza Taldeak herria girotuko du gaur arratsaldean, Dantzari Eguna ospatuko baitu Untzagan. Erakustaldia 19:30ean hasi eta 21:00ak inguruan amaituko da. Dantzariak Kezka

Dantza Eskolan eta Kezka Dantza Taldean ikasturtean zehar ikasitako dantzak jendearen aurrean erakutsiko dituzte.

Nele Dantzaren ikuskizun bikaina

Nele Dantza dantza garai-kide taldekoek ikasturte amaierako ikuskizun bikaina aurkeztu zuten Coliseo antzokian aurreko barixakua eta zapatuan. Asteburu honetan berriro ere taldearen dantzekin gozatu ahal izango dugu, kide batzuk bihar Untzagan izango baitira, 13:00ean.



Maite Arriagaren ikasleen erakusketa Topalekuan

Maite Arriagaren Sormenezko Tailer Artistikoen ikasleen lanak erakutsiko dituzte asteburuan Topalekuan. Gaur inauguratuko dute erakusketa 19:00etan eta 21:00ak arte egongo da zabalik. Bihar 12:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara joan daiteke ikustera eta, domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



igroza.ru

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		8	6	3	4	
		2		9		
		3	4	7	6	
				4	5	
7	8	6		2	1	3
5		9				
9	2		5	8		
		3		1		
8	7		2	3		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	7	5	3	4
			9	6
	6			1
3	5			
	9	4	1	3
			2	6
9			4	
	1	2		
4	7	8	3	

S
U
D
O
K
U

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

Ekainak 10/16

BARIXAKUA 10

DANTZA

19:30 Dantzari Eguna (Klub Deportiboa-Kezka). Untzaga.



DANTZA

20:00 Biraka Dantza. 3 euro. Coliseo.



ZAPATUA 11

OLINPIADA TXIKIA

10:00 Bisita gidatua eta kirol probak. Iturburu.

KALEAN EHUNTZEKO EGUNA

10:00/13:00 "Kaleak gureak dira". Anbulatorioko plaza.



SKATE ERAKUSTALDIA

10:30/14:30 II. Skate erakustaldia (Hop eta Ipar). Untzaga.

DANTZA

12:00 Urban Dance. Julian Etxeberria, Zuloagarren, Eibarko Bizikleta Plaza, Untzaga, Ego-Gain, Toribio Etxebarria.

KALETARTE

12:00 Kontzertua: Gorka eta Borja. Anbulatorioko parkea. Graffiti murala margotzea. Zuloagarren.

12:40 'Emil y Andrea' eta Saray Garcíaren ikuskizuna. Eibarko Bizikleta Plaza.

13:30 Eibarko dantza eskolen saioa. Untzaga.

18:30 Kontzertua: Ainhoa Arroita.

19:00 Kontzertua: Mise en Abyme. Toribio Etxebarria.



KULTURARTEKOTASUN PINTXOPOTEA

12:30/16:30 Kultur aniztasuna landuko da, gastronomiaren bidez. Untzaga.

IGERIKETA

16:00 XXXIII. San Juan Igeriketa Saria. Ipurua kiroldegia.



DANTZA

16:00/21:00 Eibarko VII. Break Dance eta New Style Txapelketa. Txaltxa Zelai. Ipurua kiroldegia.

POESIA

20:00/22:00 Gau poetikoa, Maite Lorenzok zuzenduta. Ibarkuratze.

DOMEKA 12

MUSIKA

12:00 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria

MARTITZENA 14

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztiarentzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Ardantza 11tik abiatuta.

BIZIKLETA MARTXA

11:00 Pentsiodunen Mugimenduaren Bizikleta Martxari harrera. Anbulatorio parean.

EGUAZTENA 15

MUSIKA

19:00 uan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Coliseo.

DANBORRADA

19:00 Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua. **20:00** Helduena. Beistegi eraikina (B. Sarasketa, 7).

EGUENA 16

MUSIKA

16:30/20:30 Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Coliseo.

GIMNASIA ERRITMIKOA

19:00 Ipurua Gimnasia Erritmikoko taldearen erakustaldia. Untzaga.

ERAKUSKETAK

Gaur, bihar eta etzi:

- **Maite Arriagaren Sormenezko Tailer Artistiko**en ikasleen lanak. (Topaleku).

Ekainaren 17ra arte:

- **Zeramika Udal Eskolaren eta Dibujo Udal Eskolaren ikasturte amaierakoa.** (Portalea).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

ERROMERIA

10ean (barixakua) / 18:00 Kalegoen plaza Musika Eskolako ikasleen dantzaldia.

KONTZERTUA

10ean (barixakua) / 23:00 Kultur Etxeko sotoa Maraca Diablo.

TRINITATE JAIK

11n (zapatua) / 23:00 Kalegoen plaza Helduen Danborrada. **12an (domeka) / 12:00** Haurren Danborrada.

ERMUA

TXINDURRI EGUNA

11n (zapatua) Cardenal Orbe plaza **12:30:** Dantza-poteoa. **19:00:** Dantza erakustaldia. **20:00:** Berbena (Kittu). **21:00:** Larrain-dantza. **12an (domeka)** **11:00:** Kalejira. **12:30:** Dantzaldia. **14:00:** Bazkaria. **17:00:** Erromeria (Fan&Go).

DEBA

DANTZA JAIALDIA

11n (zapatua) / 22:00 Aldats pilotalekua Kulunka Dantza Taldearen eskutik.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **11n:** 19:45, 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 20:30

“Sin ti no puedo”

Zuzendaria: Chus Gutiérrez



2 ARETOA

- **11n:** 17:00, 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 20:30

“El comensal”

Zuzendaria: Angeles Glez. Sinde



ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **13an:** 20:30

“Live is Life”

Zuzendaria: Dani de la Torre



ANTZOKIA

- **11n:** 17:00
- **12an:** 17:00

“Marmaduke”

Zuzendaria: Mark Dippé



<p>*** FUNEUSKADI Single Asisten</p>	<p>*** FUNERARIA MUGICA Funerariak</p>
<p>*** TANATORIO EIBAR</p>	<p>*** TANATORIO ERROTARIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kallion, s/n. SIGMA Industrialdea (Diasako hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 15</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Gebio · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Juan M^a Esturo Irusta

15. URTEURRENA
2007/06/09



“Hamabost urte dira
laga gintuzula, baina
gure bihotzetan egunero
jarraitzen duzu”

- ETXEOAK -



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.



Zorionak, **MALEN!**
Atzo 4 urte bete zenittuan-eta!
Patxo erraldoi bat etxekuen partez!
Asko maite zaittugu, sorgintxo!



Zorionak, **UXUE!!!**
Bixar 4 urte beteko dozuz-eta.
Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu, printzesa!



Zorionak, **MAIALEN,**
hillaren 7xan 6 urte bete zenduaz-en-eta.
Aitxitxa-amama, Markel eta Aitanaren partez.



Zorionak, **JOKIN** (hillaren 8xan, 19 urte) eta **MIREN** (hillaren 11n, 24 urte). Jarraitu hain jator eta maitagarrixak izaten. Etxeko guztien partez.



Alfonso Rodriguez Fernandez

5. URTEURRENA
2017/06/10

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

- ZURE LAGUNAK -





Jose Manuel Alberdi Zabaleta “Mandiola”

1. URTEURRENA
2021/06/12

“Urtebete jua zifiala, baiifa gurekin jarraitzen dozu. Asko maitte zaittugu”

BETIKO GURE BIHOTZETAN
- MANDIOLA GAINEKO FAMILIA -



Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan**
- Deban etxe bat alokagai da abuzturako, herri erdian. 677336775.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat egokitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.
- Logela hartuko nuke alokairuan. Kontratuarekin. 632088660.

- Pisua hartuko genuke alokairuan. 3 logelakoa. 2 heldu eta 2 umezant. Lan egonkorra, kontratuarekin. Erreferentziak. 604120104.
- Donostian etxebizitza alokagai abuztuko azken hamabostaldian: 17tik 31ra. Ondarreta hondartzatik bost minutura. 3 logela, bainugela. Berriztuta, terraza itsas bistekin. Wifia eta igogailuarekin. 699027734.
- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (garajea aukeran). 2019an gutzitza erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokala alokatu edo erosiko nuke zezen-plaza inguruan. Edozein egoeran dagoela. 609885710.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 611051983.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzeko ziuertagiriarekin. 622233171.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 602074398.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 641588274.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 631170273.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). 692932984.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631143972.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 666685184.
- Neska eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta arratsaldean jasotzeko. 649025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauze ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 632419944.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean edo gauzez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentziak. 610667535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta garbiketarako egiteko. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 642855788.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia bulogo eta kontabilitatean. 603710317.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko udaran. 662574424.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Baita oporraldietan ere. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da

- garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 643568742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 642395031.

4.2. LANGILE BILA

- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka. luengo41@gmail.com
- Elgoibarren interna (50 urtetik gorakoa) behar da baserri batean. Autoa eta zainzaile-ziurtagiriarekin. 653723095. Pili.
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Jaiky tabernarako. 695690784. Ana.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatea prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811.



Amaia 95.000 €
 2 logela. Bista paregabeak.



Egiguretarren Kontsultatu
 Pisu altua. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Garaje itxia aukeran.



Iparragirre 85.000 €
 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Oso eguzkitsua.



Legarre-Gain 84.000 €
 2 logela. Bizitzera sartzeko moduan.



Mekola Kontsultatu
 Eraikitzen (entrega 2023an). 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela-terrazza (30 m²) Garajea eta trasteroa.



Romualdo Galdos 145.000 €
 3 logela, balkoia, komuna. Igogailua eta berogailua.



San Juan Kontsultatu
 Azken pisua. 4 logela, 2 komun. Igogailua kaletik.



San Juan Kontsultatu
 170 m². Hegoalderako orientazioa. Guztiz kanpora begira. Igogailua kaletik.



San Juan 148.000 €
 Pisu altua. Berritzeko. Oso argitsua. 108 m². Igogailua eta ganbararekin.



Sautxi Kontsultatu
 Estreinatzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Trasteroa. Garaje plaza 2.



Txonta Kontsultatu
 Azken pisua, terrazarekin. 3 logela. Igogailua kaletik.



Untzaga Kontsultatu
 Guztiz berritua. 4 logela, 3 komun, jangela, sukaldea. Trasteroa. Egongela Untzagara begiratzen duen balkoiarekin.



Untzaga Kontsultatu
 3 logela. Igogailua eta berogailua.



Untzaga 159.000 €
 Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun.



Urki 87.000 €
 Berritzeko. Igogailuarekin.



Urkizuko dorreak Kontsultatu
 Pisu altua. 4 logela eta balkoia. 105 m². Igogailua kaletik.

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

KORRIKAREN
lekukoa
jaso

aurtengo
berrikuntzak
ezagutu

AURKEZPEN EKITALDIA

EGUNA: Ekainak 15, asteazkena

ORDUA: 18:30

LEKUA: PORTALEA - Areto Nagusia



TALDE
ARGAZKIA
atera

